

Olentzero maitea,

Ze moduz? Beste urte bat da etxeetara zatozela zorientasuna eta maitasuna ekartzera. Ez dakit nitaz oroitzen zaren, baina urte hau nolakoa izan den kontatu nahi dizut.

Zelako urtea! Oso-osokoa, zoragarria izan da 2019a. Izan ere, esperientzia berriak bizi izan ditut, onak zein txarrak, atzerrira bidaiatu dut, jende berria ezagutu dut, eta garrantzitsuena: pila bat ikasi dut. Ikasi egin dut neure burua maitatzen, nire albokoak zaintzen eta pertsona hobea izaten. Azken denboraldi hau oso ona izan ez den arren, zalantzarik gabe nire bizitzako urterik onenetako bat izan da.

Zoritxarrez, nire adineko nerabe askok ez dute halako aukerarik izaten, eta horretarako idazten dizut "ikustarazteko", nolabait esanda

Munduan milaka milioi pertsona gara baina boterea nahiz dirua oso era desorekatuan banatuta daude, hots, batzuk ni baino askoz hobeto bizi dira; baina beste askok, aldiz, ez dute oinarrizko bizi-baldintzarik, hala nola, jatekorik, bizitzeko lekurik, ezta behar bezalako hezkuntzarik ere. Gainera, herrialde batzuetan hurrengo goizera bizirik helduko ote diren jakitea zaila suertatzen zaie, gudan daudelako edota ez dutelako beharrezkoa duten osasun-zerbitzurik.

Nire ustez, gu errespetatzen eta guztiei aukera berdinak ematen ikastea baino garrantzitsuagorik ez dago munduan. Izan ere, denok dugu gure iritzia esateko eskubidea, bizitza bat edukitzeko eskubidea baita besteen belarrietara iritsi ahal izateko eskubidea ere, baina aukerarik eman ezean, ezin izango dugu ezer aldatu mundu honetan. Pertsonak baloratzen hasi behar dugu eta gero, gainerako arazoen bila joango gara.

Hori dela eta eskatzen dizut ume guztiak aukera horiek izatea: jateko eta ondo lo egiteko aukera, ikasteko aukera, soldata on batekin eta baldintza onargarriekin lan egiteko aukera, eta mundu hau hobea izan dadin laguntzeko aukera.

Besterik gabe, espero dut ahal duzuna egitea, eta primerako oporraldia opa dizut.

Maitasunez,

Ane